

EUSKARAREN Berripapera

sumarioa

1 • Pedro de Yrizar Mendebalde Alkartearen omenaldia

2 • Pertsonaia:
Itziar Idiazabal
• Laburrak:
Gabriel Aresti gogoan
Lan mundua,
elebitasun erreminta
• Deialdia:
SIML programa

3 • UEMA eguna
• Euskadi
Literatura Sariak

4 • Euskalterm Interneten
• Xarriton,
Manuel Lekuona saria
• Gotzon eta Roman
Garate: Urrezko Luma

PEDRO DE YRIZAR dialektologoa

Mendebalde Alkartearen omenaldia jaso du



ZALDIERO

Bi eguneko jardunaldiak egin zituen Mendebalde Alkartearak maiatzean Bilbon, Batzar Nagusien Aretoan. Jardunaldien hirugarren aldia izan zen eta "Euskalkien lekua literaturan" izenburu nagusiaren azpian egin ziren. Ohiko hitzaldi eta mahai-inguruekin batera, Pedro de Yrizarri omenaldia, euskalkietako aditzen azterketan egindako lan handia eskertzeko asmotan.

Pedro de Yrizar Azkoitian jaio zen 1910ean, nahiz eta oso gazterik Madrila joan bizitzera. Hantxe egin zituen ikasketak: industri ingeniari da, eta ekonomian lizentziatua ere bai. Euskararen ikerketetan eman du bizia, dialektologia arloan batik bat. Euskalki denetako aditz laguntzailearen morfologia aztertu du: gipuzkera, bizkaiera, goi-nafarrera, erronkaria, lapurtera, eta mendebaldeko behe-nafarrera argitaratu ditu eta laster kaleratuko ditu ekialdeko behe-nafarrera eta zuberera ere. Esan zuenez, "ez dago euskal aditzaren egitura bezalakorik, bakarra da. Badaude antzeko batzuk, jakina, baina ez da gauza bera. Beti gustatu izan zait euskal aditza".

Pedro de Yrizar ez da bakarrik ari izan lanean. Baditu laguntzaile berriemaileak. Euskaltzain urgazle da 1947az gero, eta ohorezko 87tik, eta euskaltzain denak erabili ditu, gutxi-asko, beren herriko aditzaren berri eman ziezaioten. Egun, Koldo Artola du kolaboratzailekerik estuena.

Adiskide handi izan zituen Tovar, Caro Baroja eta Mitxelena. 89 urte beterik, hiru adiskideez oroitu eta zera dio Pedro de Yrizarrek orain: "Hiruretan neu nintzen zaharrena, baina ni baino lehenago hil ziren hirurak. Bakarrik gelditu naiz, zoritxarrez".



Euskalkien lekua literaturan

Mendebalde Alkartearen egunek euskalkiak literaturan duten lekua aztertzeke balio izan zuten. Sail bitan banatu ziren hitzaldiak. "Atzotik gaurra: iturriak", batetik, eta "Mendebaldeko idazlearen praxia", bestetik.

Adolfo Arejita, Luis Baraiazarra, Andres Urrutia, Andolin Eguzkitza eta Xabier Kaltzakorta ari izan ziren lehenengo saileko mintzaldietan.

Bigarren sailekoetan, berriz, Xabier Amuriza, Miren Agurne Meabe, Lourdes Unzueta, eta Ana Urkiza.

Mahai-ingurua ere izan zen Itxaro Borda, Aingeru Epalza eta Iñigo Aranbarriekin. Sorkuntza lanetan euskalkiei ematen dieten lekuaren gainean jardun zuten.





laburrak

GABRIEL ARESTI gogoan



Gabriel Aresti hil zenetik 25 urte bete-ko dira geurtz. Idazle bilbotarraren inguruko erakusketa eta jardunaldiak egiten hasi dira, hala ere. "Gabriel Aresti. Idazle, euskaltzale,

plazagizona" erakusketa ireki dute Bilbaoko Bidebarrieta Kulturunean, eta Donostian izango da urrian. Datorren urtean zehar, gainera, herri eta auzoetako liburategietaraino iritsiko da.

Bidebarrietako arduradunek, bestalde, Kulturunean berton 1986an Arestiri buruz egindako jardunaldietako aktak argitaratu dituzte liburu batean, Jon Kortazar irakaslearen zuzendaritzapean.

•••••

LAN MUNDUA, elebitasun erreminta

"Euskara Planak, Enpresen Hizkuntza Kudeaketarako erremintak" jardunaldien amaiera ekitaldia egin zen maiatzaren 12an Zamudion. Euskara planen esperientziaren inguruko hausnarketa izan zen.

Horri dagokionez, 1990az gero, ELAY, Ikerlan, CAF eta beste zenbait enpresatan euskara normaltzeko egitasmo pilotuak abiarazi zituzten. Harrezkero, metodologia beste hainbat enpresetara zabaldu da.

Egun, 24 enpresa ari dira ekimenean: hamabi enpresa-talde euskara planetan daude sartuta, eta gainerakoak bideragarritasun-azterketa edo planen diseinua egiten ari dira.

Aurten beste sei enpresa eta erakunde hasiko dira urratzen bide bera. Esate baterako, Estampaciones Bizkaia, Unesco Etxea eta Novia Salcedo taldeak.

Euskara planak diseinatu eta garatzen dituzten zerbitzu enpresak ere ugalduta egin dira eta gero eta gehiago dira merkatu honi heldu nahi dioten prestakuntza eta giza baliabideen enpresak.

Hizkuntza Politikarako Sailordetzak baliabideak indartu ditu eta euskara planen gaiak aztertu, koordinatu eta sustatzeko zerbitzua sortu du.

pertsoneia

ITZIAR IDIAZABAL

Unesco Etxea, Haur Hizkuntzari buruzko Nazioarteko Biltzarra



EGUNKARIA

rrean. Munduko hizkuntz-egoera sozio-linguistikoen tipologia egitea da helburua eta 2001. urterako burutu nahiko luke lana Unescok. Hizkuntzen erradiografia hori bideratzeko 40 galdera dituen galdetegia egin dute euskaraz, ingelesez, gaztelaniaz, frantsesez, txineraz eta errusieraz, eta 5.100 ale zabaldu munduko 2.700 lekuetara. Unibertsitateetara, komunitate indigenoetara eta Unescoren kide diren estatu guztietara zabaldu da galdetegia.

Haur Hizkuntzaren Ikaskuntza

Uztailaren 12tik 16ra Haur Hizkuntzaren Ikaskuntzarako VIII. Nazioarteko Biltzarra izan da Donostian, EHUREn Uda Ikastaroen babesean. Miramarren izan beharrean, hala ere, Kursaleko kubo txikian izan da biltzarra.

Hiru urtean behin egiten da bilkura eta munduan alor horretan ari diren adituen topaleku ohi da beti. Aurten ere, punta-puntako irakasle eta ikertzaileak bildu dira: Miguel Siguán, Dorothy Bishop, Jean-Paul Bronckart e.a.

Nekeak neke, batzorde antolatzailean gogo onez jardun du Itziar Idiazabalek, Munduko hizkuntzen txostena lantzen Bilbaon, Haur Hizkuntzaren Ikaskuntzan sakontzen Donostian.

Euskal Herriko Unibertsitateko Euskal Filologia katedraduna albiste izan da bi arrazoirengatik. Batetik, Unesco Etxea bultzatzen ari den Munduko hizkuntzen txostena lantzen ari den batzordeko kide delako. Bestetik, uztailaren 12tik 16ra Donostian egin den Haur Hizkuntzaren Ikaskuntzarako VIII. Nazioarteko Biltzarra antolatzen jardun duelako.

Munduko hizkuntzen txostena

Txostena lantzen ari den nazioarteko batzordeak Bilbaon bildurik jardun zuen lanean zenbait egunez maiatzaren honda-

deialdia

SIML programa

Europako hizkuntz aniztasuna laguntzeko Europako Batzordearen programa da SIML. Helburua, sare bidezko zerbitzu eta baliabide eleaniztunak sortzea. Interneten eta web orrialdeen garapen azkarrak enpresen lan egiteko modua aldarazi du. Aukera berriak eskaini ditu eta, aldi berean, erroka berriak ekarri. Digitozko informazioa hainbat hizkuntzatan lortzea gero eta baliabide eraginkorrago ari da gertatzen, nazioarteko salerosketa elektronikoa delako medio, batik bat.

Horretan, SIML programak laguntza deialdia egin du, enpresa-bezero arteko harremanak Internetez bideratzeko. Internet gune handi eta berritzaileen diseinu, garapen eta mantenimendu eleaniztunak babestuko ditu SIMLek.

Informazio gehiago behar izanez gero: mlis@lux.dg13.cec.be Gainera, web gunea: <http://www.2.echo.lu/mlis>

1999ko irailaren 6a baino lehen egin behar dira eskaerak.

UDALERRI EUSKALDUNAK AURRERA

Aro guztietan euskaraz bizitzeko konpromisoari eutsi nahi izan dio aurtzen ere Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak. Horixe nabarmendu zuen Zeanurin ospatu zen IX. UEMA egunak.

Udalerri euskaldunetan euskaraz burutzen dituzte udal administrazioak eskatzen dituen lanak. Beren helburuen artean da, bestalde, osasun zerbitzuen eta bake epaitegien euskalduntzea, hor hut-sune nabarmenak dira eta.

Zeanurin Mankomunitateko kide berri egin ziren Anoeta, Irura eta Belauntza eta, honenbestez, 34 partaide dira.



UEMA ren web gunea



Aurtenez gero, Interneten da UEMA www.jalgi.com/uema helbidean. Mankomunitateari buruzko informazio denaz gainera, "profesional euskaldunen" zerbitzua kontsultatzeko modua dago, hau da, euskaraz lan egiten duten hainbat profesionalen zerbitzua eskuratu ahal izateko datu basea.

EUSKADI LITERATURA SARIAK

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak abiarazi ditu aurtengo Euskadi Literatura Sariak. Duela bi urtez gero ohi denez, euskarazko literatura, haur eta gazte literatura, itzulpen onena, eta gaztelaniazko literatura sarituko dira.

Ekainaren 16an bukatu zen lanak aurkezteko epea eta egun horretatik bi hilabetera hartuko du epaimahaia sariei buruzko erabakia.

Saritutako lanek eta idazleek gure gizartearen aitormena izango dute eta, horrekin batera, gure hizkuntza eta geografia mugetatik kanpo ezagutarazi ahal izango dira.



ARGIA / MONIKA DEL VALLE

